

ALDEBIKOA:

Gaur egun Haurreskoletan dagoen egoera ikusita, LABek lehengo astelehenean, urriaren 9an, Haurreskolak Partzuergoarekin aldebiakoa burutu genuen (hau da, enpresa eta LABen arteko bilera). Bileran gai hauek jorrazteko eskatu genuen:

- **Pertsonalgo kudeaketaz**, LABek Partzuergoari adierazi zion egun Haurreskolak behar den bezala kudeatzeko langile nahikorik ez dagoela, eta langile gabezi horrek ondorio kaltegarriak ekartzen dizkie bai Haurreskoleei bai haurreskoletako langileei, dagozkien baimen, lizentziak, ... jaso gabe geratzen direlako, besteak beste Partzuergoarekin hitz egiterik lortzen ez dutelako, eta arazoa hau bideratzeko langile gehiago kontratu behar zirela kudeaketa era egokian eraman ahal izateko.
Erantzuna hau izan zen: ez zela hori Partzuergoak zuen pertzepzioa, baina egoera horrela bazen, 2 langile gehiago kontratatuko zituztela, bat jadanik eta bigarrena urtarriletik aurrera.
- **Bigarren HE ez duten langileen egoera:** berriro, enegarren aldian, gai hau planteatu genuen. Batetik 28 langile hauek OPErako 2HE eduki behar dutelako, eta bestetik gutxienez 3 Haurreskoletan Partzuergoaren hizkuntza trataera, euskaraz, bermatzen ez delako, eta honen aurrean irtenbideak eman behar zirela. Partzuergoak bere aldetik hauxe esan zigun: 2HE ez duten 28 langileekin bilera egingo zuela, eta prest zegoela 2 edo 3 orduko liberazioa eskaintzeko, ordu hauetan langile hauek ordeko euskaldunekin ordezkatzuz.
- **Ekainean LABek egindako salaketaren inguruan**, hots, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxe guztietako eraikinen ekipamendu, instalakuntzak, segurtasun neurriak,aztertzen zituen txostenaz, orain arte egindakoaz galdetuta, emandako erantzuna hauxe izan zen: ikastetxe guztien azterketa egiten ari zirela eta denbora behar-

ko zuten guk salatutakoa bideratzeko, tartean eraikinen ekipamendua eta instalakuntzak udaletxeei zegokielako. LABek esan zuen ikasturte honetan zabaldu diren haurreskoletan irekitzeko baimena berriro eman dutela 0-3 arautzen duen Dekretuak ezarritako baldintzak bete gabe.

- **Eta azkenik, jantokietaz, jangela zerbitzua nola eman behar duten erabakitze**ko gaia aztertzen ari direla, eta beraientzat jangela zerbitzuak balio erantsia duela. LABek esan zien guretzat ere jangelak balio erantsia zuela, haurreskolek eman beharreko kalitatezko zerbitzu barruan kokatu behar zela eta ondoren ikusi kalitatezko zerbitzu hori nola egokitu tokian tokiko haurreskoletan, eta sukalde langileria Partzuergoarena izan behar zela. Eta Partzuergoarentzat balio erantsia catering, zerbitzu azpikontratatu, sukaldeko langilearen lan baldintzen prekaritatea ... zela.

Ikusten duzue aurreko bi gaiekin, kudeaketarako pertsonalgora eta 2HE ez duten langileen inguruan, aurrerapausoak izan daitezkeen asmo onak mahai gaineratu zituztela, eta orain ikusi behar da asmo horiek errealitatea bilakatuko diren. Baina eraikinek dituzten baldintzen inguruan eta jantokietaz Partzuergoa eta LAB oso urrun daude.

LEP/OPE:

Bileran Partzuergoak jakinarazi zigun 0-3 arautzen duen dekretua berritzeko lanean ari direla eta ikasturte honetan argitara emango dutela. Bestalde, LEPa(OPEa)ren gaineko aipamena egin zuten, euren nahia zela 2008an deialdia egin, eta 2009an gauzatu. Gai honekin ez dugu geure burua urduritu behar, batetik denbora gelditzen delako, eta bestetik deialdiaren oinarriak (oinarriak, gaitegia, baremazioa, ...) sindikatuekin negoziatu behar dutelako.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/haur>

Arabak	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Bueno Montreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 927 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia1@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 coursic karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org

LEGE BILTZARREKO HEZKUNTZA BATZORDEA:

Testuinguru honetan, LABek ekainean egindako salaketan oinarriturik EHAK-k talde parlamentarioak legez besteko proposamena aurkeztu zuen, eta urriaren 11an, Gasteizko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu zen. Legez besteko proposamenak 5 puntu zituen:

1. Haurreskolak Partzuergoa eta Udalek beren ardurei erantzun diezaioten eta Haurreskolen kalitatezko zerbitzua bermatzeko baldintzak ziurtatu ditzaten.
2. Haurreskolak Partzuergoa eta Udalek jangela zerbitzu egoki bat eman dezaten eta horretarako Partzuergoak sukaldariak kontratatu ditzan eta garbiketari dagokionean, eginkizun hori betetzeko langileak ezarri ditzan.
3. Hezkuntza Sailari, Haurreskolak Partzuergoari eta Udalei eskatzen die, segurtasun neurriak bermatuko dituen plana eta larrialdietarako plana ahalik eta azkarren prestatzea.
4. Hezkuntza Sailari, Haurreskolak Partzuergoari eta Udalei etorkizunean irekiko diren haurreskola guztiek dekretuan ezartzen diren oinarritzko baldintzak betetzea.
5. Eusko Jaurlaritzari, bere aurrekontuetan Hezkuntzak oro har, eta zehazki Haur Hezkuntza 1. zikloak dituen behar eta gabezi guztiei aurre egiteko beharrezkoa den dirua inbertitzea, egungo aurrekontuetan agertzen diren indizeak Europa mailako indizeen parean jarritz.

Eztabaida ondoren, legez besteko proposamenak 6 boto jaso zituen (EHAK eta PSE), 7 boto kontra (PNV, EA, IU), PP abstenitu zen eta Aralarrek ez zuen eztabaidan zein bozketan parte hartu (ez zuten gauza bera egin Parlamentuan aurkeztu zutenean hezitzaileen egutegi luzatzearena). LABentzat aukera polita galdu da haurreskoletan dauden gabeziak bideratzeko, eta horrek erakusten digu klase politikoa errealitatearekiko zein urrun aurkitzen den. LABek egindako lanarekin jarraituko du, berriro salaketak egiten jarraituko du, eta espero du klase politikoa dagoen autismitik irtetea eta haurreskolek duten errealitatea euren agenda politikoan sartzea.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/haur>

Arabari	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Bueno Montreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 927 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia1@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 coursic karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org

LAN OSASUNA:

Azkenik, egun hauetan Haurreskoletara beste sindikatu batek bidali duen informazioa aipatu nahi dugu. Sindikatu bakoitzak zilegitasuna du informatzeko modua eta zein eduki sartuko duen erabakitzeko, baina pasarte batean egoitzen baldintzak aitatzen ditu, “ ... *haurreskola batzuen baldintzak kezkarriak dira.....Gipuzkoako lurraldean gure prebentzio delegatuarekin hasiko gara lanean egoitzen azterketa edo mapa egiteko*”. Honetaz komentarioak bai: LABek hain zuzen ere 3 lurraldetako haurreskoletako eraikinen baldintzak jasotzen dituen txostena iragan ikasturtean burutu zuen, salatu zuen, LABek agerian jarri dituen gabezi guztiekin egindako txostena Partzuergo Zuzendaritzaren esku jarri du, gutxienez Dekretuak ezarritako baldintzak haurreskola guztietan bete daitezzen.

Eta hasieran adierazi dizuegun bezala urriak 9an Partzuergoarekin egindako aldebikoan gure salaketaren kudeaketan aritu ginen. Orain sindikatu batek dio, Gipuzkoako lurraldean ordezkari duen sindikatu bakarrak, bere ordezkaria lantxo hori egiten hasiko dela. Inoiz ez da berandu baina ...

Honez gain esan, sindikatu horrek Gipuzkoan dagoen ordezkari sindikala eta prebentzio ordezkari bakarra duela, baina une honetan langile kopuruaren arabera (280 langile gutxi gora behera) 13 ordezkari sindikala hautatzea dagozkiola, eta sindikatu horrek ordezkari sindikalen eta 3 prebentzio ordezkarien hautaketa blokeaturik duela. Blokeo egoera honen ondorioz herrialde horretan, besteetan ez bezala, momentu honetan behar diren baliabideak ezin dira erabili

Komentarioa Guk egin egiten dugu, Zuek ondorioak.

<http://www.labsindikatu.org/sektoreak/irakaskuntza/haur>

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Bueno Montreal, 10 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea,62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 927 Faxa.: 944 706 909 Irakaskuntzabizkaia1@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	M.Zelaieta 75, 2.A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 coursic karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org